

13. GAIA. BALAZTAK

Erabaki ezazu baieztapen bakoitza egiazkoa ala faltsua den:

- 1) Balazta eta enbrage mekanikoak kontrakoak dira: enbragea momentu eragileaz baliatzen da eta balaztak marruskadura-momentua erabiltzen du.
- 2) Zinta-balazta batean palankari F_a indar batez eragiten zaio, zinta diskoaren kontra tenkatzen da, eta Troz marruskadura-momentu bat sartzen da, diskoa biratzeari kontra egiten diona, eta, ondorioz, disko hori eta, solidarioak duen ardatza balaztatzen ditu.
- 3) Zinta-balazta diferentziala da zintaren mutur bat ere ez denean lotzen eragintza-palankaren artikulazioarekin; hala, ardatzaren biraketa-noranzkoaren arabera:

$$F_a \cdot a = T_2 \cdot m_2 - T_1 \cdot m_1$$

- 4) Ardatzean Troz balio jakin bat garatzeko, F_a indar txikiagoa aplikatu behar da zinta diferentzialeko balaztan, sinplean baino. Fenomeno horri “autoekintza” deitzen zaio.
- 5) Zapata-balazta bat ukitzean, presioak modu senoidalean banatzen dira, abiapuntutzat palankaren artikulazioa eta ardatzaren zentroa lotzen dituen zuzena hartuta. Hala, $\sin\varphi$ maximoa duen disko-zapataren kontaktu-puntuan agertzen da gutxieneko presioa.
- 6) Ardatzaren biraketa-noranzko bietan, zapata-balazta autoeragilea da, eta autoblokantea izatera irits daiteke.
- 7) Automobil baten lau balaztak (gurpil bakoitzean bat) danbor motakoak direnean, atzeko gurpiletan duplex motako balaztak eta aurrekoetan simplex motakoak jarri ohi dira.
- 8) Disko-balazta baten marruskadura-momentuaren kalkulua disko-enbrageetarako erabiltzen denaren berdina da; alde bakarra da enbrageetan pare geldiarazteko pare bat zela, eta disko-balaztetan, berriz, transmisio-pare bat.
- 9) Sortutako beroaren magnitudea ez dago galgatze hori eragin duen momentuaren edo balaztatze behar izan den denboraren mende, baina zenbat eta txikiagoa izan balaztatze-denbora, orduan eta kolpe gehiago sortuko da bero horrek, eta zailagoa izango da hura kanporatzea.
- 10) Garatutako momentua zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa da balaztatze-denbora, baina beroa denbora gutxiagoan sortzen da, eta horrek balazta gehiago berotzen du.